



**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA** PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO  
MEKANIKOA

**MEKANIZAZIOKO TEKNIKARIA**

1 modulua: **Mekanizazio Prozesuak**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA** PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO  
MEKANIKOA

## MEKANIZAZIOKO TEKNIKARIA

1. modulua: **Mekanizazio Prozesuak**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA**

Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: 1.a, 2009ko urtarrila

Ale-kopurua: 150 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Iñaki Campo Celemín

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán  
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA  
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

Inprimatzea: EPS (Eusko Printing Service, S.L.)

L.G.: VI-651/09

# AURKIBIDEA

Iraupena: 165 ordu  
UDen kopurua: 12

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04 or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05 or.
1	1. unitate didaktikoa: Industria-materialak	08 or.
2	2. unitate didaktikoa: Biraketa-piezen mekanizazioa	12 or.
3	3. unitate didaktikoa: Torneatze-prozesuak zehaztea	16 or.
4	4. unitate didaktikoa: Forma desberdinetako piezen mekanizazioa	19 or.
5	5. unitate didaktikoa: Fresatze-prozesuak zehaztea	23 or.
6	6. unitate didaktikoa: Abiadura handiko mekanizazioa	27 or.
7	7. unitate didaktikoa: Konformazio- eta mekanizazio-prozedura bereziak	30 hr.
8	8. unitate didaktikoa: Urratzaileen bidezko mekanizazioa	34 or.
9	9. unitate didaktikoa: Elektrohigadura bidezko mekanizazioa	38 or.
10	10. unitate didaktikoa: Elektrohigadura-prozesuak zehaztea	42 or.
11	11. unitate didaktikoa: Prozesu-orriak prestatzea	45 or.
12	12. unitate didaktikoa: Mekanizazio-kostuak	49 or.

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK				UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4		
				UD0: Moduluaren aurkezpena	1 ordu
X				UD1: Industria-materialak	13 ordu
	X			UD2: Biraketa-piezen mekanizazioa	15 ordu
		X		UD3: Torneatze-prozesuak zehaztea	12 ordu
	X			UD4: Forma desberdinetako piezen mekanizazioa	14 ordu
		X		UD5: Fresatze-prozesuak zehaztea	16 ordu
	X			UD6: Abiadura handiko mekanizazioa	6 ordu
	X			UD7: Konformazio- eta mekanizazio-prozedura bereziak	14 ordu
	X			UD8: Urratzaileen bidezko mekanizazioa	15 ordu
	X			UD9: Elektrohigadura bidezko mekanizazioa	15 ordu
		X		UD10: Elektrohigadura-prozesuak zehaztea	15 ordu
		X		UD11: Prozesu-orriak prestatzea	14 ordu
			X	UD12: Mekanizazio-kostuak	15 ordu
<b>GUZTIRA</b>					<b>165 ordu</b>

1. multzoa: Mekanizazio-materialak hautatzea
2. multzoa: Mekanizazioko makinak eta baliabideak hautatzea
3. multzoa: Mekanizazioa baloratzea
4. multzoa: Produktu mekanikoen mekanizazioa

0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 hrdu			
<p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.</li> <li>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.</li> <li>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.</li> <li>4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.</li> <li>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</li> </ol>					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.</li> <li>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</li> </ul>				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.</li> <li>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.</li> <li>• Moduluaren helburuak.</li> <li>• Modulus eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</li> </ul>				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.</li> <li>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</li> </ul>				

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			lr.	lk.			
<b>11. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.</b>	1	10 m.	x	x	Irakasleak eta ikasleek nor bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteak sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
<b>12. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.</b>	2-4	10 m.	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Arbela.</li> <li>▪ Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.</li> <li>▪ Kronogramak.</li> <li>▪ Informazioa duten fotokopiak.</li> </ul>
<b>13. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.</b>	2-3	10 m.	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.  Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
<b>14-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.</b>	5	30 m.	x	x	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitateara egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

### OHARRAK

- Nahikoa izango da I1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- I4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa banean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntu jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (I) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (In-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. I-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: INDUSTRIA MATERIALAK		Iraupena: 13 ordu			
<p><b>IE1: Mekanizatu beharreko materiala hautatzen du, haren ezaugarri teknikoak eta merkataritzakoak lortu beharreko produktuari buruzko zehaztapenekin erlazionatuta.</b></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mekanizatu beharreko produktuari buruzko zehaztapenetan bildutako materialen inguruko informazioa interpretatzea.</li> <li>2. Material landugabearen dimentsioak zehazteko, mekanizazio-prozesuen ezaugarriak kontuan hartzea.</li> <li>3. Materialen mekanizagarritasun-ezaugarriak eta ezaugarri horiei dagozkien balioak identifikatzea.</li> <li>4. Material bakoitza dagozkion aplikazio teknologikoekin erlazionatzea.</li> <li>5. Materialen mekanizazio-baldintza egokienak identifikatzea.</li> <li>6. Materialak manipulatzeko eta hondakinak husteak berekin dakartzaten arriskuak identifikatzea.</li> <li>7. Materialaren merkataritza-erreferentzia identifikatzea.</li> <li>8. Prozesua hobetzeko hautabideak proposatzea.</li> </ol>					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mekanizatu beharreko material landugabeak identifikatzea.</li> </ul>	X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Material normalizatuak: material metalezkoak, polimerikoak eta zeramikoak sailkatu eta kodetzea.</li> <li>• Material mekanizagarrien forma komertzialak.</li> <li>• Materialen mekanizagarritasun-ezaugarriak.</li> <li>• Materialak eta horien mekanizazio-baldintzak</li> <li>• Material jakin batzuk mekanizatu eta manipulatzeko izaten diren arriskuak (leherketa, toxikotasuna eta ingurumen-kutsadura, besteak beste).</li> <li>• Materialen aplikazio teknologikoak.</li> <li>• Materialen ingurumen-eragina.</li> </ul>	X X X X X X X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kostuak murrizteko konpromisoa.</li> <li>• Material-hondakinak murrizteko konpromisoa.</li> </ul>	X X			

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
<b>J0-E0. Udaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa.</b>		1 h	x	x	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, ebaluazio-sistema, egutegia, etab. aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ikasleek gaiari buruz duten ezagutzaren hasierako ebaluazioa egiteko, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie unitate didaktiko honetan garatu beharreko edukien inguruan. Irakasleak gaiari buruz ikasleek dituzten ezagupenak zuzenduko ditu eta horiek erantzun zuzenekin osatuko ditu.	Ikasleek moduluen edukiak zein diren jakiteko eta haien hasierako ezagupenak ebaluatu ahal izateko.  Jarduerak eta horien ordu-banaketa ikasleen abiapuntuko ezagupenetara egokitu ahal izateko.	OCDa. Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.
<b>I1-E1. Materialen inguruko alderdi hauek azaltzea:</b> ∞ Ezaugarria. ∞ Konposizioa. ∞ Fabrikazio mekanikoan gehien erabiltzen diren materialak lortzeko prozedura.	1 2 7	5 h	x	x	Irakasleak material eta mota desberdinetako pieza mekanizatuak eman diezazkieke, horiek azter ditzaten, eta piezaren materiala lortzeko, dituen ezaugarriak ezagutzeko eta hura aldatzeko jarraitu beharreko prozedura zehaztu dezaten. Jardueretan egindako lana ebaluatuko du.	Helburu nagusia da ikasleek mekanizatuko den piezaren materialaren ezaugarriak behar adina ezagutu eta ulertzea; batez ere, mekanizazio-prozesuan eragina izango dutenak, eta, zehazkiago, ebaketa- eta prozesatze-baldintzak. Era berean, materialak lortu eta prozesatzeak ingurumenaren gainean duen eragina zein den jakiteko balio behar du. Azkenik, ikasleek gai izan beharko dute fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren materialak manipulatu eta transformatzeko berez dakartzan arriskuak identifikatzeko.	Irakasleak ezarritako zenbait lanen bidez, ikasleek materialen ezaugarriak eta konposizioak material horiek lortzeko prozedurarekin duen lotura ulertu dezaten. Karbono-altzairuak, aleatuak, galdaketak eta aleazio bereziak lortzea.
<b>I2. Azalpena eta praktika gidatua, materialaren berezko</b>	2 3	3 h	x	x	Irakasleak ikasleei piezaren materialaren ezaugarriak neurtzeko erabili beharreko makinak	Ikasleak gai izan daitezten bere kasa piezaren materialak berezkoak dituen ezaugarriak	Besteak beste, lehen adierazitako makina guztiak

<b>ezaugarriak neurtu eta ebaluatzearekin lotuta.</b>	4 5 6 7 8				funtzionamendua azalduko die. Horien artean, besteak beste, durometroa, gainazaleko durometroa, mikroskopio metalografikoa, eta trakzio-konpresioko, erresilientziako eta bestelako saiakuntzak egiteko makina. Ikasleek, taldeka, praktikak egingo dituzte eta datuak arian-arian txosten batean jasoko dituzte; gainerako ikasleen aurrean, egindako saiakuntzen emaitzak azaltzearen.	neurtzeko eta piezaren planoan ezarritako zehaztapenak egiaztatu ahal izateko.	beharko dira; hots: durometroa, gainazaleko durometroa, mikroskopio metalografikoa, eta trakzio-konpresioko, erresilientziako eta bestelako saiakuntzak egiteko makina.
<b>I3. Azalpena eta praktika gidatua, planoan zehaztutako ezaugarriak lortzeko piezan egin beharreko tratamendu posibleekin lotuta.</b>	5 6 7 8	3 h	x	x	Irakasleak ikasleei azalduko die planoko zehaztapenak lortzeko beharrezko tratamenduak egiteko erabili behar diren instalazioen (labea, gatz-bainuontzia, olio- eta ur-tangak) funtzionamendua. Ikasleek, taldeka, praktikak egingo dituzte eta datuak arian-arian txosten batean jasoko dituzte; gainerako ikasleen aurrean, egindako saiakuntzen emaitzak azaltzearen. Ikasleek tratatu diren materialen ezaugarri-aldaketak mekanizazio edo fabrikazioko parametroekin lotuko dituzte.	Materialaren berezko ezaugarriak zein diren jakin ondoren, planoko zehaztapenak lortu ahal izateko tratamendu termikoak, kimikoak edo azalekoak zehazteko, eta aldatutako ezaugarriek mekanizazio-prozesuan zer-nolako eragina izango duten ulertzeko.	Oraingoan ere, besteak beste, lehen adierazitako instalazio guztiak beharko dira; hots: durometroa, gainazaleko durometroa, mikroskopio metalografikoa, eta trakzio-konpresioko, erresilientziako eta bestelako saiakuntzak egiteko makina.
<b>I4. Aurreko bi jardueretan lortutako datuak taldeka azaltzea irakaslearen eta gainerako ikasleen aurrean.</b>	1 2 3 4 5 6 7 8	1 h		x	Oinarri hartuta lehen egindako 2 txostenen datuak, lan-talde bakoitzak irakasleak egindako galderei erantzungo die. Taldeko ikasleek lehen egindako jardueretan lortutako datuak besterik ez dituzte erabiliko, horiek gainerakoen aurrean azaltzearen.	Talde bateko ikaslea gai izan dadin gainerako taldekideei eta irakasleari azaltzeko piezaren planoan zehaztutako ezaugarriak. Horrela, edukiak zein neurritaraino bereganatu dituen eta horiekiko helburuak noraino lortu dituen agerian jarriko da.	

### OHARRAK

- Beharrezko makinari edo instalaziorik ez badago, arazoa konpontzeko, materialen saiakuntzetan eta tratamenduetan espezializatutako enpresa batera bisitaldia egin daiteke, ikasleek ikus dezaten piezaren materialaren ezaugarriei buruzko datuak lortzeko egin daitekeen eragiketa bakoitzean zein prozesuri jarraitu zaion.
- Jarduera praktikoetarako, komeni da beste modulu batzuetan erabilitako piezak eta materialak baliatzea eta, fabrikazio mekanikoan duten garrantziagatik, komenigarritzat jotzen diren beste pieza eta material batzuekin osatzea.
- Ez da ahaztu behar materialak lortzeko, eta tratamendu termikoak eta azalekoak emateko prozesuekin lotutako jardueren helburua dela material horien ezaugarriek mekanizazio-prozesuetan zer-nolako eragina dute ulertzea, ez, ordea, prozesua sakonean aztertzea.
- Jardueretan hainbat merkataritza-katalogo erabili behar dira, nazioarteko markak materialari buruzko zehaztapen normalizatuekin lotu ahal izateko.

## 2. unitate didaktikoa: BIRAKETA PIEZEN MEKANIZAZIOA

Iraupena: 15 hrdu

IE2: Azken produktuaren ezaugarriak aztertu ondoren, makinak eta baliabideak hautatzen ditu.

### Ikaskuntzaren helburuak:

1. Lortu beharreko produktuaren formak eta perdoiak identifikatzea.
2. Tornuen funtzionamendua eta horiekien erabil daitezkeen mekanizazio-teknikak deskribatzea.
3. Makina mota eta lortu beharreko piezaren forma geometrikoak elkarrekin erlazionatzea.
4. Tornuan piezak eusteko tresneriaren funtzionamendua eta doikuntza azaltzea.
5. Erreminta-etxeak eta erremintek osatutako multzoan beharrezkoak diren erregulazioak deskribatzea.
6. Tornurako ebaketa-erremintak eta erreminta-etxeak hautatzea.
7. Tornuan piezak kargatu, deskargatu eta manipulatzeko gailu osagarriak identifikatzea.
8. Neurtu edo egiaztatzekeo tresnak hautatzea.
9. Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa erakustea.
10. Mekanizazio-tekniken bilakaera historikoa baloratzea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mekanizaziorako tomuak hautatzea.</li> <li>• Tornuan piezak eusteko tresneria hautatzea.</li> <li>• Ebaketa-erremintak eta horien erreminta-etxeak hautatzea.</li> <li>• Piezak kargatu eta deskargatzeko ekipoak hautatzea.</li> </ul>		X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tomu mota bakoitzarekin lor daitezkeen formak eta kalitateak.</li> <li>• Tomu motak: sailkapena, ahalmenak eta mugak.</li> <li>• Tornuan piezak eusteko tresneria.</li> <li>• Tomeatzeko ebaketa-erremintak.</li> <li>• Erreminta-etxeak.</li> <li>• Tomuak kargatu eta deskargatzeko ekipo osagarriak.</li> <li>• Tornurako ebaketa-erremintak: materialak, ebaketa-geometria.</li> <li>• Egiaztatu eta neurtzeko tresnak.</li> <li>• Hautatutako elementuen eragina mekanizazioaren kostuan.</li> </ul>		X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berritzeko jarrera eta ekimen pertsonala.</li> <li>• Prozesu teknologikoan lan profesionala baloratzea.</li> </ul>		X		

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
		1 h	Ir.	Ik.			
<b>J0-E0. UDaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa.</b>		1 h	x	x	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, ebaluazio-sistema, egutegia, etab. aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ikasleek gaiari buruz duten ezagutzaren hasierako ebaluazioa egiteko, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie unitate didaktiko honetan garatu beharreko edukien inguruan. Irakasleak gaiari buruz ikasleek dituzten ezagupenak zuzenduko ditu eta horiek erantzun zuzenekin osatuko ditu.	Ikasleek moduluen edukiak zein diren jakiteko eta haien hasierako ezagupenak ebaluatu ahal izateko. Jarduera eta horien ordu-banaketa ikasleen abiapuntuko ezagupenetara egokitu ahal izateko.	OCDa. Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.
<b>I1-E1. Irakasleak ikasleei emandako apunteak azaltzea. Piezaren materiala zehaztu ondoren, honakoa azaldu beharko da:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tornu-mota.</li> <li>• Beharrezko erremintak.</li> <li>• Pieza eta erremintak lotzeko sistemak.</li> <li>• Beharrezko ebaketa-baldintzak.</li> </ul>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10	6,5 h	x		Irakasleak emandako apunteak azalduko ditu, eta ikasle-taldean sor daitezkeen zalantza argituko ditu. Garrantzitsua da pieza mota bakoitza mekanizatzeko beharrezko makina, tresneria eta osagarriak hautatzeko garaian kontuan hartu behar diren aldagaiak azpimarratzea. Ondoren, ikasleek bereganatutako ezagutza-maila ebaluatzeko test bat egingo du.	Ikasleek beharrezko ezagupenak izan ditzaten ondoren taldeko jarduerak egin ahal izateko.	Emandako apunteen eta taldeko irakasleren azalpenen bidez.
<b>I2. Praktika gidatua, irakasleak taldeari proposatutako pieza bat mekanizatzeko tornu egokiaren inguruan.</b>	2, 3, 7, 8 eta 9	1,5 h	x	x	Tornuei buruzko katalogoak erabiltzen eta aztertzen edo Interneten tornuen inguruko informazioa bilatzen. Banakako fabrikazioa, eta serie txikiak eta handiak bilduko dituzten mekanizazio motak planteatu behar dira.	Ikasleek behar adinako irizpidea beregana dezaten piezaren planoan zehaztutako eragiketarako egiteko tornu egokiena hautatzeko. Irakasleak ulertu beharra dauka makinak hautatzeak duen eragina enpresaren	Mekanizazio-kasu bakoitzari buruzko informazio teknikoaren eta produktioaren bidez. Mota orotako tornuak egiten dituzten makina-erreminta

						lehiakortasunean. Ikasleen baitan, produktibitatearen eta etekinaren kontzientzia eraiki behar da.	fabrikatzaileen beharrezko informazioaren bidez.
<b>13. Azalpena eta praktika gidatua, tornuan pieza amaitu ahal izateko beharrezko erreminta hautatzearen inguruan.</b>	4, 5 eta 6	1,5 h	x	x	Tornu-erremintei buruzko katalogoak erabiltzen eta aztertzen edo Interneten tornu-erreminten inguruko informazioa bilatzen. Ikasleek mekanizazio-kasu bakoitzerako (banakakoa, serie handia edo txikia) erreminta egokienak hautatuko ditu, eta errentagarritasunaren aldetik hautaketa hori justifikatuko du.	Ikasleek behar adinako irizpidea beregana dezaten piezaren planoan zehaztutako eragiketak egiteko tornu-erreminta egokiena hautatzeko. Bideragarritasunaren, errentagarritasunaren eta kostuaren kontzeptuak gogoan sartzeko.	Mekanizazio-kasu bakoitzari buruzko informazio teknikoaren eta produkzioaren bidez. Tornuetarako erremintak egiten dituzten makina-erremintarako ebaketa-erreminten fabrikatzaileengandik ateratako beharrezko informazioaren bidez.
<b>14. Azalpena eta praktika gidatua, aurreko jardueran hautatutako ebaketa-erremintak lotzeko sistemak hautatzearen inguruan.</b>	4, 5 eta 6	1,5 h	x	x	Tornu-erremintak lotzeko sistemei buruzko katalogoak erabiltzen eta aztertzen edo Interneten tornu-erremintak lotzeko sistemen inguruko informazioa bilatzen. Euste-sistema bakoitzaren (erreminta-etxea) abantailen eta eragozpenen inguruan eztabaidatzen.	Ikasleek behar adinako irizpidea beregana dezaten piezaren planoan zehaztutako eragiketak egiteko tornu-erreminten lotze-sistema egokienak hautatzeko.	Mekanizazio-kasu bakoitzari buruzko informazio teknikoaren eta produkzioaren bidez. Tornuetarako ebaketa-erremintak lotzeko sistemen fabrikatzaileengandik lortutako beharrezko informazioaren bidez.
<b>15. Azalpena eta praktika gidatua, piezaren mekanizazioa amaitzeko erabili beharreko lotze-sistemak hautatzearen inguruan.</b>	7, 8 9 eta 10	1,5 h	x	x	Tornuko mekanizazioan pieza lotzeko erabili beharreko sistemei buruzko katalogoak erabiltzen eta aztertzen (behar izanez gero, sistema berezi bat diseinatuko da). Pieza lotzeko sistema bakoitzaren abantailen eta eragozpenen inguruan eztabaidatzen.	Ikasleek behar adinako irizpidea beregana dezaten piezaren planoan zehaztutako eragiketak egiteko tornu-piezaren lotze-sistema egokienak hautatzeko.	Mekanizazio-kasu bakoitzari buruzko informazio teknikoaren eta produkzioaren bidez. Tornu-piezak lotzeko sistemen fabrikatzaileengandik lortutako beharrezko informazioaren bidez. Beharrezkoa izanez gero, dagokion piezarako lotze-sistema berezia diseinatuko litzateke.

<p><b>16. Azalpena eta praktika gidatua, jardueretan hautaketen beharreko baldintzak inguruan.</b></p> <p><b>eta</b></p> <p><b>praktika aurreko egindako arabera lortu ebaketa-hautatzearen</b></p>	<p>7, 8, 9 eta 19</p>	<p>1,5 h</p>	<p>x</p>	<p>x</p>	<p>Aurreko jardueretan egindako hautaketak kontuan izanda, mekanizazioan lortu beharreko baldintzak ezarriko dira, piezaren planoan zehaztutakoa betetzearren.</p>	<p>Mekanizazio-eragiketak optimizatzeko, eta mekanizazio-prozesu bakoitza gauzatzeko erabiltzen diren tresna eta erremintei etekin handiena ateratzeko.</p>	<p>Mekanizazio-kasu bakoitzari buruzko informazio teknikoaren eta produkzioaren bidez. Erabili beharreko tornu-erreminten eta tornuaren inguruko beharrezko informazioaren bidez.</p>
<p><b>OHARRAK</b></p>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unitate honetan proposatutako jardueretan kasu berberak erabili beharko lirateke. Kasu horiek banakako mekanizazioak, serie txikietakoak eta serie handietakoak bildu beharko lituzkete.</li> <li>• Azaldutako kasuez gain, interesgarria litzateke beste unitate didaktiko batzuetan eta beste modulu batzuetan ere planteatutako ariketak erabiltzea, jarduerak ez gainjartzeko eta gaitasunak bateratzeko.</li> </ul>							



### 3. unitate didaktikoa: TORNEATZE PROZESUAK ZEHAZTEA

Iraupena: 12 ordu

**IE3: Fase bakoitzaren sekuentzia eta kontrol-aldagaiak aztertu eta justifikatu ondoren, mekanizazio-prozesuak zehazten ditu.**

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Tornuko mekanizazio-prozesuari dagozkion faseak eta eragiketak deskribatzea.
2. Tornu-erreminten ibilbidea zehaztea.
3. Ebaketa-parametroak hautatu edo kalkulatzeko, tornuko mekanizazioan mekanizatu beharreko materialen, ebakitzeko erreminten, eta prozesuaren aldagaien eta baldintzen arabera.
4. Torneatze-prozesuan erabili beharreko eusteko tresnak eta erremintak deskribatzea, eta dagokionean kode normalizatuak erabiltzea.
5. Gauzatu beharreko eragiketaren krokisak egitea, erreferentziatzko azalerak eta piezaren euste-erreferentziak bame direla.
6. Prozedura eta hura egiaztatzeke erabilitako baliabideak zehaztea.
7. Torneatzeko eragiketaren prozesu-orria betetzea.
8. Prozesua hobetzeko elementu gisa, soluzio teknikoekiko interesa erakustea.
9. Informazioa argiro, ordenaz eta egituratuta ematea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tornuko txirbil-harroketaren bidezko mekanizazio-prozesuen eragiketa-sekuentzia zehaztea.</li> <li>• Erremintaren edo piezaren ibilbideari dagozkion puntuak zehazteko kalkulu geometrikoa egitea.</li> <li>• Ebaketaren edo eragiketaren baldintzak hautatzea.</li> <li>• Mekanizazio-parametroak kalkulatzeko.</li> </ul>			X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mekanizazio-tekniken bilakaera historikoa.</li> <li>• Prozesu-orriak. Informazioaren egitura eta antolamendua.</li> <li>• Tornuko txirbil-harroketaren prozesuak.</li> <li>• Ebaketa-estrategiak tornuko mekanizazio konbentzionalean, zenbakizko kontrolean, abiadura handian eta errendimendu handian.</li> <li>• Torneaketako ebaketa- edo eragiketa-baldintzak.</li> <li>• Teknika metrologikoak eta egiaztatpenekoak.</li> </ul>			X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanak egiteko ezarritako epeekiko konpromisoa.</li> <li>• Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa.</li> <li>• Prozesu teknologikoan lan profesionala baloratzea.</li> <li>• Mekanizazio-tekniken bilakaera historikoa ezagutzeko jakin-mina.</li> </ul>			X	

JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J0-E0. UDaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa.</b>		1 h	x	x	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, ebaluazio-sistema, egutegia, etab. aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.  Ikasleek gaiari buruz duten ezagutzaren hasierako ebaluazioa egiteko, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie unitate didaktiko honetan garatu beharreko edukien inguruan. Irakasleak gaiari buruz ikasleek dituzten ezagupenak zuzenduko ditu eta horiek erantzun zuzenekin osatuko ditu.	Ikasleek moduluaren edukiak zein diren jakiteko eta haien hasierako ezagupenak ebaluatu ahal izateko.  Jarduerak eta horien ordu-banaketa ikasleen abiapuntuko ezagutzetara egokitu ahal izateko.	OCDa.  Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.	
<b>I1-E1. Errefortzu-jarduera, erremintaren ibilbidea zehaztearen, Pitagorasen kalkulu trigonometrikoak nahiz beharrezkotzat jotzen direnak egiteko.</b>	2	5 h		x	Irakasleak proposatuko ariketak egiten. Ariketetan, puntuak espazioan kotatzeko erabiltzen diren kalkuluaren sorta osoa bildu beharko litzateke; eta benetako mekanizazio-kasuak erabili beharko lirateke. Asmoa ez da matematika-formulak garatzea, problemak ebazteko horiek erabiltzea baizik. Kalkulu-prozesua azpimarratu behar da. Ikasleek, ustez, aurreko hezkuntza-etapetarik gaitasunak bereganatu dituztenez, komenigarria litzateke ikasle bakoitzari bere gaitasunera egokitutako kasuak planteatzea. Ondoren, ikasleek ariketak arbelean egingo dituzte, haien ezagupenak ebaluatzearen.	Erremintaren ibilbidea zehazteko, matematika-funtzioak erabiltzearen beharraz jabetu daitezten. Gai izan daitezten fabrikazio-planoan irudikatzen ez diren kotak osatzeko, eta mekanizazioko ibilbideak eta parametroak kalkulatzeko.	Benetako piezen edo piezen planoen bidez (konoak, esferak, hariak, etab. barne hartu behar dituzte). Kalkulagailua.	
<b>I2. Ebaketa-erreminten fabrikatzaileen katalogoak erabiltzeko praktika autonomoa (horien izendapen normalizatua zehaztuko da), pieza bat mekanizatzeako erabiliko diren</b>	3	3 h		x	Proposatutako piezaren mekanizazioari eta mekanizatu beharreko pieza kopuruari buruzko azterketatik abiatuta.  Erreminta bakoitzaren prestazioak eta kostua kontuan izanda.  Irakasleak zehaztutako pieza mekanizatzeako beharrezko	Ohitu daitezten erabilitako erremintak dagokien kode normalizatuaren arabera zehazten. Mekanizazioan	Suposizio praktiko batean, fabrikazioko aginduaren eta planoaren bidez. Internetez homitutako informatika-gelan irakasleak	

parametroak finkatzearen.					erremintak katalogoetan edo Interneten bilatzen, eta haiek dagokien kode normalizatuaren arabera zehazten.	errentagarritasunak duen garrantziaz jabetu daitezten.	emandako katalogoen bidez.
<b>I3. Egiaztatze-elementuei buruzko katalogoak erabiltzea, mekanizatutako piezaren dimentsioak egiaztatzearen.</b>	6	1 h		x	Proposatutako piezaren mekanizazioari eta mekanizatu beharreko pieza kopuruari buruzko azterketatik abiatuta.  Piezaren neurriak kontrolatzeko beharrezko egiaztatze- eta kontrol-elementuak katalogoetan edo Interneten bilatzen. Banakako eta serieko fabrikazio-kasuak proposatu beharko dira.	Ohitu daitezten egiaztatze- eta kontrol-elementuak zehazten, fabrikatzaileak ezarritako kodearen arabera.	Internetez hornitutako informatika-gelan irakasleak emandako katalogoen bidez.
<b>I4. Taldeko azalpena.</b>	1 2 3 4 5 6 7 8 9	2 h	x	x	Lan-talde bakoitzak aurreko bi jardueretan lortutako datuak azalduko ditu irakaslearen eta gainerako ikasleen aurrean. Oinarri hartuta lehen egindako txostenen datuak, lan-talde bakoitzak irakasleak egindako balderei erantzun die. Taldekako ikasleek lehen egindako jardueretan lortutako datuak besterik ez dituzte erabiliko, horiek gainerako aurrean azaltzearen.	Talde bateko ikaslea gai izan dadin gainerako taldekideei eta irakasleari azaltzeko piezaren planoan zehaztutako ezaugarriak. Horrela, edukiak zein neurritaraino bereganatu dituen eta horiekiko helburuak noraino lortu dituen agerian jarriko da.	

#### OHARRAK

- Informazioa bilatzeko erarik egokiena Internet sarearen bidez da. Izan ere, bertan, erreminta-fabrikatzaile guztiak ez ezik, egiaztatze- eta kontrol-elementuak ere aurkituko ditugu.
- Unitate honetan planteatutako ariketak ondorengo unitateetan planteatzen diren kasuetako batzuk izango dira.
- Hautaketa-jarduera guztietan bezalaxe, garrantzitsua da ikasleak egindako aukera zenbaki bidez justifikatzea.

4. unitate didaktikoa: FORMA DESBERDINETAKO PIEZEN MEKANIZAZIOA

Iraupena: 14 ordu

**IE2: Azken produktuaren ezaugarriak aztertu ondoren, makinak eta baliabideak hautatzen ditu.**

**IE3: Fase bakoitzaren sekuentzia eta kontrol-aldagaiak aztertu eta justifikatu ondoren, mekanizazio-prozesuak zehazten ditu.**

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Lortu beharreko produktuaren formak eta perdoiak identifikatzea.
2. Fresatzeko makinaren funtzionamendua eta horiekin erabil daitezkeen mekanizazio-teknikak deskribatzea.
3. Makina mota eta lortu beharreko piezaren forma geometrikoak elkarrekin erlazionatzea.
4. Fresatzeko makinan piezak eusteko tresneriaren funtzionamendua eta doikuntza azaltzea.
5. Erreminta-etxeak eta erremintek osatutako multzoan beharrezkoak diren erregulazioak deskribatzea.
6. Fresatzeko makinarako ebaketa-erremintak eta erreminta-etxeak hautatzea.
7. Fresatzeko makinan piezak kargatu, deskargatu eta manipulatzeko gailu osagarriak identifikatzea.
8. Neurtu edo egiaztatze tresnak hautatzea.
9. Kontzeptu eta prozedura berriak ikasteko interesa erakustea.
10. Mekanizazio-tekniken bilakaera historikoa baloratzea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fresatzeko makinak hautatzea.</li> <li>• Fresatzeko makinan piezak eusteko tresneria hautatzea.</li> <li>• Fresatzeko makinaren ebaketa-erremintak eta horien erreminta-etxeak hautatzea.</li> <li>• Fresatzeko makinarako piezak kargatu eta deskargatzeko ekipoak hautatzea.</li> </ul>		X X X X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fresatzeko makina mota bakoitzarekin lor daitezkeen formak eta kalitateak.</li> <li>• Fresatzeko makina motak: sailkapena, ahalmenak eta mugak.</li> <li>• Fresatzeko makinan piezak eusteko tresneria.</li> <li>• Fresatzeko ebaketa-erremintak.</li> <li>• Erreminta-etxeak.</li> <li>• Fresatzeko makina kargatu eta deskargatzeko ekipo osagarriak.</li> <li>• Fresatzeko makinarako ebaketa-erremintak: materialak, ebaketa-geometria.</li> <li>• Egiaztatu eta neurtzeko tresnak.</li> <li>• Hautatutako elementuen eragina mekanizazioaren kostuan.</li> </ul>		X X X X X X X X X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berritzeko jarrera eta ekimen pertsonala.</li> <li>• Prozesu teknologikoan lan profesionala baloratzea.</li> </ul>		X	X	

JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J0-E0. UDaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa.</b>		1 h	x	x	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, ebaluazio-sistema, egutegia, etab. aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ikasleek gaiari buruz duten ezagutzaren hasierako ebaluazioa egiteko, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie unitate didaktiko honetan garatu beharreko edukien inguruan. Irakasleak gaiari buruz ikasleek dituzten ezagupenak zuzenduko ditu eta horiek erantzun zuzenekin osatuko ditu.	Ikasleek moduluaren edukiak zein diren jakiteko eta haien hasierako ezagupenak ebaluatu ahal izateko. Jarduera eta horien ordu-banaketa ikasleen abiapuntuko ezagutzetara egokitu ahal izateko.	OCDa. Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.	
